TTiPi-TTAPA

1.988ko URRIA

25. zenb.

Donamaria
Arranta
Donezteb
Narbarte
Zugarramurdi
Sumbilla
Igantzi
Xabalen
Lesaka
Baztandaren
Ibiltzen
Bera
Etxalar
Ituren
Urrotz
Olazueta
Zubieta
© Pablo Salgado Garcia

NON-ZER



BERRIAK

2.- Bera
4.- Lesaka
6.- Etxalar
8.- Igantzi
9.- Arantza
10.-Malda-Erreka
12.-Ituren
13.-Goizueta
14.- Zugarramurdi

GAIAK,ARTIKULUAK,...

16.-Euskaldun izatea gure euskaldean edo que te parta un rayo.
18.-Udal gestioaren egoera.
20.-Geurea dena guretzat.
22.-Baztandarren biltzarra.
24.-Baztani buruz zertxobait gehiago.
27.-Ai Ene!!
30.-Etxebizitza kartzela ote?
32.-Ikastolak itxi?
35.-Behin batean.
36.-Ekin euskarari.
37.-Horrelakoak bagenekizkien.
38.-Potrokilo komikia.
40.-Nafarroa oinez-88.

BERA

Zalaingo biztanleek ez dute etxe ondoan errepiderik nahi.

BARIANTEKO OBRAK HASI DITUZTE

Bazen garaia eta badirudi bariantea eginen dutela. Berako herriak atseden ederra nabarituko du irekitzen dutenean, bere kaleetatik zehar pasatzen ziren kamioitzar horiek handik ibiliko bait dira.

Dena dela barianteak igaro behar duen lekuetan ere izan dira arazoak, zeren horrelako projektu batek beti sortzen bait ditu eragozpenak, ingurugiro aldetik etab.

Gainera kasu honetan bi auzoren ia erditik pasatzen da, Alkaiaga eta Zalaindik hain zuzen ere.

Zalain auzoko biztanleak izan dira borroka haundiena eraman dutenak, VERKOL lantegiak errekurtso bat aurkeztu bait zuen Diputazioan, barianteak bere terrenoa kentzen ziola argudiatuz. Diputazioak hasieran onartu egin zuen errekurtso hau baina horrek bariantea auzoaren ondo-ondotik igarotzea suposatzen zuen. Orduan auzotarrak mugitzen hasi ziren, ekintza ugari burutu eta Diputaziora eta bertze leku aunitzetara buelta franko egin dute.

Azkenean badirudi konponbide batera iritsi direla eta VERKOLek amore eman behar izan duela, bidezkoa denez, etxebizitza bat ez bait daiteke konparatu lantegi batek duen lur zati batekin.

HOTEL ZAHARRA

Denok ezagutuko duzue "kruzero" ondoan dagoen etxe haundi bat, aspaldidanik hutsik dagoena. Nahiz eta lehen "Hotel Larhun" bezala ezagutu dugun, orain etxebizitzak, dendak eta lurrazpiko garajeak egiteko asmoa dago. Etxe inguruan zegoen zakarra eta larra garbitu dute eta teilatua konpontzen ari dira. Aipagarria da atentzio haundia piztu duela aldaketa honek, egunero ikus bait dezakegu jende ugari lanean nola ari diren begira.

LOURDESERA BIDAIA

Urtero bezala, aurten ere Lou desera bidaia antolatu zen jo den hilabetean. Baita jende auni ere joan eta harat ailegatu ond ren, dendetan ze biltzala, Bera zazpi lagun kartera ebatsi zi ten, dokumentazio eta guzti. B ohartu zen eta poliziengana jo zen parte ematera, baina gaino tzekoak mugara ailegatu arte ziren deusetaz konturatu. Batz gutti omen zuten baina bertze b tzu berriz, diru frango zeramat eta ziuraski ez zaiote itzultze gogo handirik gelditu izanen...

BESTAK

Aurten ere joan zaizkigu herrik bestak, eta egia erran, sei egun motz xamarrak gelditu zaizkigu ia ia ohartu gabetenik pasatu bai dira. Ohizko egitarauaz gain (dan tzariak, miattuak, dantzaldia

eta abar), aurten bizpahiru gauza berri izan ditugu: bi egunez asto karrera eta Berako Eliz paretaren eskalada. Izugarrizko beroa izan arren, jende aunitz bildu zen enparantzan eta han ikusi ahal izan genituen katuak bezain arin ziren bi mutil elizako kanpandorrea goitzen inolako laguntza gabetenik. Ondotik DYAk "itxurazko erreskate" bat egin zuen.

Hala ere, aditu dugu zenbait jende kexati xamar dabilela, helduendako gauza haundirik ez dagoela eta...

ILEKUETA

Eta erdal erraera zaharrak dioen bezala, (hau da, "ez dago bigarrenik hirugarrena gabeturik"), aipatu beharko, Ilekueta auzo xarmangarriaren bestak. Bertzetan bezalaxe, hemen ere jokoak, dantzariak, herri bazkaria eta azkenik dantzaldia Aritza eta Gaubela taldeekin. Eta hauekin akitutzat ematen dugu besten kronika...

AGERRA

Eta bestaondoa pasa berria genuenean, ailegatu zitzaizkigun Agerra auzoko bestak ere. Txarangak, haur jokoak, harpana, apostua, haurren danborrada eta azkenik jende ugari bildu zen dantzaldian Aritza taldearekin.



Berako udala eta ikurriña.

Heldu den urtetik aintzina Berako herriko bestetan udaletxeko balkoietan ikurriña eta herriko bandera bertzerik ez da jarriko. Hau da abuztuaren 11an egindako sesio berezian hartutako erabakia.

Teniente alkatea den Josu Goiak presiditu zuen sesioa, Iriarte alkatea (Indp) falta bait zen bertze hiru zinegotzi bezala: Etxebeste (Indp.) Telletxea (HB) eta Agerri (EA). Bi banderak bakarrik agertzeko proposamena HBk aurkeztu zuen eta honen alde botoa eman zuenak Goia eta Alzuguren (HB), Senper, Fagoaga eta Zelaieta (EA) izan ziren. Iturria eta Igoa (Indp) berriz "lau banderak edo bakar bat ere ez" proposamenaren alde agertu ziren.

Erabaki honek harritu egin gaitu, bestak baino lehentxeago proposamen berbera aurkeztu eta ezezkoa gaiendu bait zen, hau da, aurten behinik behin lau banderak jarri dizkigute eta heldu den urteko bestak lekutan daude oraindik...

Oharra.-

Aintzinako TTIPI-TTAPAren alean, baserrietako karta-banatzaile bezala Rosa Gallego aukeratua izan zela erraten genuen albiste modura. Baita ere, lan honetarako erdaldun bat aukeratzea salatzen genuen. Baina badirudi gure erran nahia ez zela ongi ulertu, zenbait kexa jaso bait ditugu. Gure salaketa ez zoaien Rosaren aurka (eta barka gaitzala kalterik sortarazi baldin badiogu) Correosen aurka baizik, honelako gertaerak garbi azaltzen bait dute gure hizkuntza eta herriarekiko axolagabekeria Correosko Zuzendaritzaren aldetik.



Urtero bezala hor ibili ziren erraldoiak gure herriko kaleetan zehar.

LESAKA

BETI-GAZTE FEMENINOA

Bai, egia da. Horrenbertze zurrumurruren ondotik, futbol talde femeninoa sortu zen iaz Lesakan. Hemen duzue, pixka bat, talde honen historia, bere pausoak eta etorkizunerako asmoak.

Lesakako neska futboltzale batzuk, mila aldiz eztabaidatu ondotik, futbol talde bat sortzea erabaki zuten, baina ez talde normala edo tradizionala, femeninoa baizik. Asmo honekin proposatu zioten "Beti-Gazte"ko zuzendaritzari bere babesean osatzea ekipoa. Baiezkoa jaso zuten baina honako baldintza hauek bete behar izan zituzten:

-Entrenatzailea bilatzea.

-Falta ziren jokalariak aurkitzea.

Hori zela eta, Jesus Senosiain hartu zuten entrenatzaile bezala.

Hurrengo pausoa taldea legalizatzea, hau da, federatzea izan zen.

Hau dena egin ondotik, 1987-1988ko GIPUZKOAKO KOPA jokatu zuten, eta aurten 1988-1989ko GIPUZKOAKO LIGA jokatzen ari dira.

Erran beharra dago, bertze aldetik, Nafarroan futbol talde femenino bakarra dela , federatua behinik behin.

OIARTZUN eta AÑORGAko ekipoak hoberenetakoak direlarik, horien kontra jokatu eta irabazten saiatzen dira gure "neska gerlari" hauek.

Gipuzkoa aldera egiten dituzten ateraldiak (ia ia astero), kotxez egiten dituzte, koste honen dirua ordainduta dutelarik.

Astean zehar hiru egunez entrenatzen dute, astelehenetan, asteazkenetan eta ortziraletan. Beraz, norbait animatzekotan, hortxe du aukera ederra.

Beno, bertzerik gabe, hemendik animatzen zaituztegu.

SUERTEA IZAN ETA AINTZINERA BETI!!

AUPA NESKAK !!

Ezin esango dugu AEK-koak beti bulegoan edo klasean sartuta egoten direnik.

ROCK TALDE BERRIAK LESAKAN

Dakizuen bezala, bi musika talde berri sortu dira azken urte honetan. Hauexek dira beren izenak: IDRISEKO AULKIA eta KANKA. Oraingoan, lehendabiziko taldearekin sartuko gara, bere historiaz zerbait jakiteko.

Lau lagun dira talde hau osatzen dutenak:

KAPI, ahotsa.
ETXARTE, kitarra.
BANTXI, bateria.
IXIDRO, baxua eta ahotsa.

Orain dela urte bat gutti gora behera hasi ziren. Hasiera batean lokalik gabe ibili ziren, lagun baten borda batean entsaiatzen. Bidezko arrazoiengatik, orain BETI-GAZTEko lokala erabiltzeko baimena eskatu dute, erantzunaren zai direlarik.

Aurten "PRINCIPE DE VIANA"-k antolatzen duen lehiaketa batera aurkeztu zuten beren lana. Horretarako maketa bat grabatu behar izan zuten bi abestirekin: "ASTELEHENA BERRIZ" izena duena eta bertze bat izengabekoa. Grabaketa hau, ORION musika estudioan egin zuten, Diputazioak ordainduta, noski.

Egun hauetan emanen dute irabazleen zerrenda, zeren 37 talde aurkeztu bait ziren, eta 10 lehenbizikoen artean gelditzea espero dute.

Beren lehen kontzertua John Lennonen eskeini zuten, orain arteko bakarra baina ez azkenekoa, KANKA eta ZENZERROK taldeekin batera kontzertu bat eskeintzeko asmoa bait dute orain. Aintzinera begira, toki guzietara joatea espero dute.

Bertze aldetik, erran dezaket musika hagitz polita dela, ez da preziski rock, hagitz estilo pertsonala dute. Aukera baldin baduzue, entzun ezazue, gustatuko zaizue eta.

Erran beharra dago baita ere, abesti guziak euskaraz eginak direla, eta modu honetan egiten segitu nahi dutela.

AEK-ren UDA IKASTAROAK

Aurten ere, aintzineko urteetan bezalaxe, Bortziriak eta Malaerrekako AEK- koek bertze eskualde eta zentro batzuekin batera udan euskara ikasteko eskeintza ezin hobea eman zuten eta aukera horietako

zenbait Bortzirietan bertan kokatu ziren.

Lesakan Uztailan eta Abuztuan 60na ikasle egon ziren "Irain" eskoletan eta Beran berriz, Lanbide Eskolak duen erresidentzian bertze 40 lagun elkartu ziren Abuztuan beren hizkuntza maila hobetzeko asmotan.

Giro ezin hobea izan genuen herri hauetan eta aipatu behar ikasleek herrikoekin erlazionatzeko jartzen zuten gogoa, nahiz eta toki arrotza izateagatik zaila gertatu.

Horrela bada, bai Beran eta bai Lesakan, antzerkia, jokoak etab. luze bat ikusi ahal izan genituen, udako giroa piska bat alaituz, beti herriko jendeak alde egiten baitu oporretan eta herria nahiko triste gelditzen baita.

Aurrerantzean ere herri hauetan beharko dugu euskara ikasteko eta kontzientzia piska bat sortzeko gisa honetako ikastaro eta ekintzen beharra.

Gure herriek eskertuko dute.

ERREKA ERREA

Joan den abuztuaren 5ean, ikusi genuen, berriro, gure erreka erasotua. Behin eta berriro, amaierarik gabeko istorioa errepikatzen da; oraingoan ere erre egin ziguten. Zeinek eta zergatik egin zuen, aski garbi daukagu, baina lortu zutena penagarria izan zen. Erreka bazterrak amurraiez beteak agertu ziren, hilik noski. Eta ez hori bakarrik, baita landare eta pizti guziak ere.

"Laminaciones de Lesaka" izeneko fabrikan, PLANTA 600ean hain zuzen ere, produkto toxikoak erabiltzen dituzte, errate baterako: azido hidraulikoa, azido sulfurikoa, zianuroa zink etabar...

Produkto horiek hortik bi depositotara pasatzen dira. Eta non dago arazoa? Ba, deposito horietatik errekara joaten direla zuzen zuzenean. Teorian, fabrikako bertze deposito guzietatik bezala, produkto horiek hodi batzuen bidez depuradorara bidali behar zituzten, baina jakina, modu errezena, merkeena alegia, errekara botatzea da. Gainera, ondoan daukate, nola uko egin aukera eder horri?

Bertze aldetik, erran beharra dago, jarri zuten depuradora hagitz ttikia dela edo ttikia gertatzen dela, ez duela nahiko kapazidade.

Adibide gisa, emanen dizkizuet abuztuaren 5ean neurtu ziren ZINK portzentaiak:

Deposito batean: 500 mgr/l
Bigarrenean: 740 mgr/l

Eta legeak onartzen duena:
Urteko batezbertzekoa: 50 mgr/l.
Egunerokoa: 5 mgr/l.

Beraz, ez dago deus erratekorik Historia pixka bat ikusteko, ikuspuntu orokor batetik, hemen duzue eskema ttiki bat.

Ez, multak edo isunak ez dira egiten diren kalteen neurrikoak.

Eta zerbait egin al dezakegu arazo honen aintzinean? Bai, salatu eta salatu, konponbide bat harrapatu arte. Egia erran, hori izan da orain arte presionatzeko bide bakarra, jendeak egindako salaketak, lege aldetik ez baita irtenbiderik, nahiz Udalak nahiz Diputazioak ez dutelako sobera jarri beren aldetik. Ez dira saiatu ere egin. Zergatik? Beharbada ez zaie interesatzen, nork daki ... Aski ongi adierazi digute (bertzela begiratu eskema), ez dutela pezetarik gastatuko arazoa konpontzen. Orduan ez dago zalantzarik: errekara doazen hodi horiek moztea da soluzio bakarra. Eta noski, hori da eskatzen duguna. Gezurra dirudi, baina "Europako ingurugiroaren urteak" ez digu aldaketarik ekarri.

ISURKETA TOXIKOAK ERREKARA

URTEA	NOIZ	ISUNA pzta	INDEMNIZAZIOA
1975	MAIATZA	1.500	——
	UZTAILA	1.500	——
1976	URTARRILA	10.000	——
1978	ABUZTUA	1.000	——
	AZAROA	275.050	
1.980	EKAINAK 13	10.000	28.000
	EKAINAK 17	10.000	4.200
	EKAINAK 18	10.000	4.900
	ABUZTUA	10.000	1.400
	IRAILA	10.000	8.500
1.988	MARTXOAK 3	10.000	——
	MARTXOAK 19	6.000	——
	EKAINA	10.000	——
	UZTAILA	8.000	1.600
1.982	ABUZTUA	10.000	163.000
1.985	ABENDUA	INFORMAZIORIK GABE	
1.986	UZTAILA	INFORMAZIORIK GABE	
1.988	ABUZTUAK 5	INFORMAZIORIK GAGE ORAINDIK	

* Erreka berriz amorraiez ornitu.

ETXALAR

Etxalarkoa eta ikurriña izan ziren aurtengo bestetako bandera ofizialak. Iluntzean, Guardia-Civilek "eraman" zituzten.

FRONTOIA BERRITU ETA ESTALTZEKO PROJEKTUA

Hauxe dugu bertze zenbaiten artean, Udalak, azken hilabeteotan hartu duen erabakia. Argitu behar da lehenik, erabakia hartu aintzinetik zenbait bilera burutu zirela gai hau aztertzeko. Bilera horietan, Udalak, projektuaren inguruko zenbait zehaztasun ezagutzera eman zien herritarrei; zenbat kostako den, estaltzeko erabiliko diren materialeak, plazaren antolaketa berria eta azkenik, frontoiaren estaltzeak, plaza inguruaren itxura estetikoan izanen duen eragina. Azken puntu honek sortu zituen eztabaidarik bizienak. Projektua definitiboki erredaktatu gabe bada ere, eztabaidarako lagungarri izan ziren, behin estali eta gero, plaza inguruak hartuko duen itxura erakusten zuten planoak.

Eztabaidetan era guztietako eritziak agertu baziren ere, gehienbat, konforme zegoen projektuaren azalpenarekin. Sakonki aztertu zen bertzalde, eskola berriekin batera egin gogo den Frontoi estaliari buruzko azalpena. Jakitera eman zenez, denbora laburrean behintzat, ez dago honetarako subentziorik lortzeko posibilitaterik eta zoritxarrez, ez dugu eskola berriekin batera frontoi berria ere ikusterik izanen.

Azkenik eta bileretan, parte hartu ez zuten herritarrek ere bere eritzia ager zezaten, Udalak, projektuaren garrantziagatik, planoak ikusi nahi zituztenek, hilabete batez Herriko Etxearen sesio-aretoan ikus zitzaketeela adieraziz, bandoa bota zuen.

Aipatu bukatzeko, projektuaren kostea 27 milioi inguruan ibiliko dela, %70a Nafarroako Gobernuak ordainduko duela eta falta dena.Etxalarko Udalak.

ESKOLETAN IKASTURTE BERRIA

Eta hau dela eta, itxaropen berriak eta baita kezka berriak ere. Gure Herriaren kulturan eta gure haurren kulturan pentsatzen gaude. Eta euskal kultura hori bizi dadin eta gure haurrak berataz jabetu daitezen, eskolak zeregin berezia duenez, eskola hau bera gertatzen zaigu esperantza berriaren eta kezka berrien iturri. Esperantza iturri, bai, ikastoletan ez ezik, bertze ikastetxe hauetan ere euskararen nortasuna nabaritzen eta ezagutzen ari baita. Baina neke eta samintasunezko bide luzea jasanez.

Aurten, Etxalarren, euskarazko irakaskuntza 3. mailaraino ailegatzen da. Bortzirietako eskoletara hurbiltzen joanen gara, agian. Euskararen lasterketa horretan, gure herriko eskolak azken postuan bait daude. Eta "agian" erran dugu. Etorkizuna ez bait dago sobera argi. Bada guraso, bere herri kulturaren kontzietziarik aski ez duenik. Eta badira irakaslek, nahiz euskara ikasten aritu, gure herri hizkuntza estimatzen eta maitatzen ez dutenak. Eta eskolako ikasketetan bazterturik eta funtsik gabekotzat daukatenak. Eta hori aski ez, horrelako irakaslek, behin baino gehiagotan, euskarari bota dio haurrak aski ez ikasiaren kulpa. Ez ote liteke izan hori, behar bada, berak lan guti eginaren edota ez ongi erakutsiaren estal-bide?

Ostartezko geroa ageri zaigu begi aintzinean: argiak eta goibelak gurutzatutako etorkizuna. Baikor izan nahi dugu. Eta irakasleek gaur egun "Herri eskola"z izendatzen duten ikastetxea, egiazki hala bihur dadin. Herri hizkuntza eta herri kultura serioski onartzen ez duen eskolari ezin baitzaio "Herri eskola" deitu.

Herriko dantzarien saioak ikusle aunitz bildu zuen.

HERRIKO PUZKERRAK

Lehengo batean kontatzen zuen txori batek, ez dagoela usain oneko buzkerrik. Eta isila bainan usain haundia izan duen bat kontatu zigun berehalaxe.

Usnatzaileak, txoriak alegia, karrikan, Herriko Etxe inguruan hartu omen zion arrastua. Usaitu zuenez, aintzinako aiuntamentuan egondako bat omen da honen erantzule eta erruduna. Usnatzailearen sudur edo piko txit zorrotzak dioenez, usaiaren intzidentzia, benetan kirastua izan arren, ez omen da sobera hedatu.

Eta buzker honen berri izan nahi duenentzat, hemendik, herriko buzkerrentzat gordetako txoko honetatik, usnatzaileak, kontu haundiz, bere garaian bote batetan sartu zituen kiratsaren azken pixarrak eskeiniko dizkizuegu. Beraz, kontuz sudurrekin eta on dagizuela. Horratx hor, txori-piko-luze horrek usaitutakoa:

"Sunbillako errekan, extranjero kotxe bat omen zegoen akzidentaturik eta dirudienez, oraindik bokado polita zuena. Aipatutako kontzejal ohiak, bere etxean moldatzen utzia zen Udalaren Land-Roverra hartu eta, hor joan omen zen asteburuko laino eta iluntasunean gorderik, akzidentatuta zegoen kotxea "lekuz-aldatzerat".

Kontu haundiz egin beharreko gauza zenez lan hori, Udalaren Land-Roverraz baliatuz egitea hobe zela pentsatuko zukeen.

Bainan nonbait aldi honetan, suertea ez zegoen bere alde eta norbaitek ikusi egin zuen, akzidentatutako kotxea Udalaren Land-Roverran eramaiten.

Hariari edo agian usaiari jarraituz, auskalo, Trafikoko Guardia Civilek argitu omen zuten afera; ustegabean kakazturik utziaz, usai txarreko buzkerrik botatzen ez zuen kontzejal ohia"

IGANTZI

HERRITARREKIN BILERA HERRIKO ETXEAN.

Abuztuaren ondar aldera, alkateak, herritar jendea bilduarazi zuen Herriko Etxera. Bazuen, baialajainkoa, gauza batzu argi uzteko gogoa. Nola ez, hagitz gaizki mintzatu izan baita alkateaz herri honetan (gutti aski da eta norbaitez gaizki mintzatzeko eta guk nahi duguna ez badu egiten areago).

Arazoa "komunal lurra" zen. Buruko min frango dakarkio bai Herriko Etxeari eta ez erran ezagutzen dugun herritar batzuri. Azken hauei ez bait zaie inondik ere sartzen irazelaiak komunalak direla erregistroan pasatuz gero partikularrak direla uste dute. Hauek dira alaiokosan, ea zergatik komunalak Nafarroan bakarrik diren, zergatik Espainia guzian ez eta hemen bai, eta zergatik ez den behingotik asuntu hori moldatzen komunalak partikularrak bihurtuz. Nork erantzunen lieke hauei, nork erranen lieke Nafarroaz harro izan behar badugu, komunalak ditugulakoz dela. Komunalak zaharrak direla eta, hizkuntzak bezala, Nafartarroi gure berezitasuna ematen digula. Dena den, ez da ikusten ez euskararen balioa, ez komunalena, ez...

Alkateak, gauzak nola dauden eta Diputazioak zer agintzen duen ederki adierazi zuen.

Ageri da gutti jakinez, sobera mintzatzen dela jendea eta zoritxarrez, sobera gaizki.

Igantziko herria.

ARANTZA

UDALAREN PLANAK.-

Udalak hiru urtetako obren plana egin du eta Diputazioari aurkeztu dio.

Plan honetan auzoetako pistak enbreatzea, saneamendua, uraren garraioa eta pabimentazioa sartzen dira.

Udalekoek, plan hau egiteko auzoetakoekin bilerak egin zituzten, batez ere pistak enbreatzeari buruz kontsultatzeko, eta auzo gehienak, bat ez gainerakoak, eskaera egiteko aldekoak ziren. Plan honetan,-herrian datozen urteetarako-ikusten diren betebeharrekoak sartu dira, baina hau gauzatzeko Diputazioaren ongi-ikusia beharko da, horrela berak ematen dituen diru laguntzen bidez lanari ekiteko.

UDALAKO BERTZE BERRI BATZUK.-

Herriko festak zirela eta Udalak banderei buruz hartutako erabakia errekurritu egin du estatuaren abokatuak.

Udalak administratibo laguntzaileari berriztatu egin dio lan kontratua.

Bertzalde, udalak, INEMen laguntzaz kontrataturik zeuden bi gazteei, Abuztuaren amaieran bukatu zitzaien kontratua. Heuren lana, zubiak, kaleak eta abar moldatzea izan da.

EHIZA ETA EHIZTARIAK.-

Urria gainean dugula eta

Inguru honetako hegaztiek gorria daukate ondorengo hilabete hauetan.

Beraz, laister hasiko gara gerran bagina bezala, tiro artean egunak igarotzen.

Guk gure aldetik hiltzea galerazita dauden txoritxoak errespetatzea eta mendiak garbiak uztea eskatuko genieke. Ez dela gehiegi eskatzea uste dugu.

Hasia da dagoeneko ehiztarien arteko girotxoa. Edozein tabernetan eta txokoetan amagin bat gauza entzuten dira.

Aurten gainera oso itxaropentsu azaltzen dira, izan ere, uda txarra egin duenez udazkena ona egingo duela diote eta horrela uso pila hilko dituztelakoan daude.

MALDAERREKA



Doneztebeko zabortegia.

ZABORRAK, ZABOR KONTUAK, AIZUE!

Uda denbora honetan izan da aldaketa. Herri guzti hauetan konteinerrak paratzean hain zuzen ere. Konteiner berde-berdeak kale bazterretan etxe ataritan, zaborrak biltzeko.

Aipamen sinple hau egitean, badirudi ezin dela beste ezer gehiago esan; baina jendea, herritarrak, eta batez ere konteiner horien ondoan bizi direnak kexu daude, ez daude konforme. Batez ere jendeak egiten duen erabileragatik. Batek baino gehiagok zaborrak baldean edo sakuan etxetik atera eta konteinerretan husten dituzte eta horretaz aparte, edozein egunetan ateratzen dira zabor boltsak, eta horrela kontainerrak gainezka gelditzen dira. Ondorio bezala, boltsa bat baino gehiago konteiner horren aldamenean utziz.

Eta batez ere, zabor gauzak ongi tratatzea merezi du, ez etxe barruan bakarrik baizik eta kanpoan ere. Asuntu guzti honetan, herritar guztiak hartu behar dugu parte eta batez ere Udalek ardura serioa izan.

Hasteko, Udalek arazoa ikusi behar dute eta konponbideak bilatu. Batetik herritarrei zenbait norma konplitzea eskatuz eta bestetik zabor bilketa sistema bera berbegiratuz.

Zein norma izan daitezke egokiak?

1.- Zabor gauza beti boltsa itxitan etxetik atera eta konteinerretan botatzea.

2.- Boltsa horiek, zaborra biltzeko kamioia pasatu behar duen egunean ateratzea komeni dela adieraziz.

Udalen partetik berriz:

1.- Orain artean 2 egunez bakarrik pasatzen da kamioia eta behar bada hori gutxizko izanen da, kontainerrak gainezka egoten direlako. Beraz, berbegiratu eta komeni bada 3. egun bat ere paratuz.

2.- Konteinerren garbitasuna aldiero aseguratzea, eta konteiner horren inguruak ere bai.

OSASUN ZENTROA.- Uda garaian berri handirik ez da sortu egia esan. Baina hala ere zenbait gauza aipatu nahi ditugu. Batez ere herritarrak jakinen gainean egoteko.

PEDIATRIA ZERBITZU BERRIA.-

Osasun zentrua martxan hasi zenetik, bertako plantilaren barnean pediatra bat izatea ere aipatzen zen. Urte eta gehiago daramakigu lanean eta uda honetan bidali dute Blanka Erize plaza hori betetzea. Pediatra honek, bere lana bi zentrotan egin beharko du. Egun batzuz Doneztebeko Osasun Zentruan eta beste batzuk Lesakakoan. Hala ere, bere lana Osasun Zentrotako beste lankideekin koordinatuz eginen du, hau da, herrietako mediku eta erizainekin batez ere.

Dena dela, pediatraren kontsulta joateko edo eta pediatraren zerbitzuak jasotzeko, herriko medikuaren bidez joan beharko da.

Aipatzekoa da bestalde, haur jaio berri edo eta ume osasuntsuei ere maiztasun batekin kontrolak eta txertaketak egi-

nen zaizkiola. Baita gurasoei zenbait aholku edo eta ideia eman haur horiek osasuntsu izan eta hazitzeko.

Horrela, haur bat jaio eta Residentzitik etorri bezain agudo, erizainari abisatu behar zaio, erizainak haur hori bere etxean ikusteko. Ondoren 15 egunetara eta aurrez zitatuz pediatrak ikusiko du. Hemendik aurrera txandakako ikustaldiak eginen zaizkio batean Osasun Zentroan pediatrak ikusiz eta bestean herriko mediku eta erizainak.

ZELADOREA.-

Osasun zentroko langileen artean, lanpostu hau ere bazegoen; iraileko hilabetean okupatua izan delarik. Lan postu hau iaz egindako oposizioen bidez lortua izan du Elgorriar batek.

ERIZAIN BAT GEHIAGO.-

Pediatra, zeladorea eta... erizain bat ere bai. Erizain bat gehiago beraz osasun talde honetan. Bere lana banatua izanen da egun batzuz Ezkurra eta Erasunen arituz eta beste batzuek Osasun Zentroan.

DONEZTEBEKO MATADEROA.-

Mataderoan hiltzen diren hazienden ondarrak Bidasoa ibaira botatzen dira eta ondorioz ibaia kutsatuz eta inguruak usai txarrez eta arratoiez bete. Arazo larria da gaur gero, batez ere jakinen gainean egonik horrelako ondarrak sor dezaketen kalteak handiak direla eta areago oraindik hazienda horiek eriak zirelako hilik izan badira, edo hil beharra izan.

Arazoa aspaldikoa da, ze ... ba al daki norbaitek zertan gelditu den FOSA kontua? Bai fosa bat egin behar zen hazienda hilen ondar horiek botatzeko eta bertan kisuz estalduz desegiteko. Fosa hori eginez gero Diputazioak ordainduko zuen gastua baina Udalak lekua paratu behar zuen. Nonbait Udalak bilatu duen lekua herritik aparte dago eta bidea egitea 6.000.000 kostatuko litzaioke eta hor dago dena "STOP" batean. Hau da, ez doala aurrera, inork ez bait du Udalean aipatzen FOSA egitearen konturik.

Kalean berriz, harakinek batetik lotsatuta horrelako zerrikeriak egitera behartuta daudelako, eta Sunbillako presa garbitu behar duena berriz nahatuta. Eta, Bidasoa ibaia berriz, mantxo mantxoan hil zorian sartzen.

Maldaerrekako osasun zentrua.

ITUREN

Hirugarren adinekoen festa eguna (1988)

EUSKAL TELEBISTA

Aurtizen orain dela sei hilabetetik honata E.T.B. ikusten da, Elizaren hilerrian antena jarri zuten, eta ederki ikusten dela esan behar.

ESKOLA BERRIAK

Iturenen eskola berriak egin behar dituzte, urrian hasiko dira lanak eta abenduan bukatuko, Nafarroako Gobernuak 16.963.772 miloi eman ditu, baina Udaletxea, Herriko Ostatuaren etxebizitza eta dena 21.225.029 pezetara igoko da. Gainerakoa urtarrilean emango du Gobernuak. Orain eskolak beste leku batzuetan daude, Eskolaurrea, 1. maila eta 2. elitxean egiten da, 3., 4. eta 5. mailak lehengo mutikoen eskolan ematen ari dira.

KURTSILOAK

Egia da, kurtsilo batzu emanen dira Iturenen, sukalde eta inbernadoreena. Jende ugari apuntatu da kurtsilu hauetara, bat EPAkoa eta bestea INEMekoa da eta hau urriaren 7an hasiko da, EPAkoa oraindik ez da hasiko.

HIRIGINTZA

Maiatza, Ekaina eta Uztailean langabezian dauden batzuk egin dute lana herrian, udaletxearen lanetan hain zuzen ere; lanak hauek izan dira: haurren eskolaren moldaketa, enparantzako fokuak eta harategia izanen den moldakuntza.

Gobernuari, zenbait eskakuntza egin zaizkio. Batetik, arautegi subsidiarioarendako, bestetik lau urtero egiten den bideentzako, urentzako, etab. plangintzarako.

Auzolanak: Lan asko egin da auzolanetan, batez ere Udaletxe bertan.

JOALDUNAREN EGUNA

Urriaren 1ean egingo da Joaldunaren eguna, ohitura den bezala orain dela urte batzuetatik honetara, beraz egun honetan ere farra ederra eginen dugu.

AURTIZKO JAIAK

Azaroan ospatuko dira San Martin de Toruseri eskeintzen zaizkion jaiak Aurtizen.

BESTAK

Giro onarekin hasi ziren bestak ostiralean suziriarekin, gero herriko txistulari eta akordiolarien kalejira eta gauean musika.

Larunbatean pilota partiduak, txirrindularien itzulia, jinkana eta Gau-Pasa. Igandean, Ikurriñaren eguna izan zen eta ekitaldi hauek izan ziren: 12-tan Lesakako bandaren ekitaldia, arratsaldean Leitzako dantzatiek dantzak eskeini zizkiguten eta gauean musika, Aritza lesakar taldearekin; eta azkeneko egunean herri kirolak, bazkari herrikoia, gauean musika eta 4etan Jai-Hilak.

Beraz, bestak gustu guztietako, gazte eta ez hain gazteeentzat.

OSASUNA

Kontenedoreak jarri dituzte auzo guztietan; denetara 15 kontenedore dira. Hauek hondakinen kamioi batek bilduko ditu astelehen eta ostiraletan.

Uraren analisi bat ere egin da eta Nafarroako Gobernuari eskaera bat eginen zaio hiru auzoen hornikuntzarako.

MENDIAK

Mendiak markatu egingo dira herriaren probetxurako. Mendiak hauek izanen dira: Mirukabi, Ontzaleku eta Sorano.

800.000 mila pezeta gutxigorabehera eman ditu Nafarroko Gobernuak Elkarrikoa eta Abatxakaren egin diren landakuntzengatik.

Urte honetan ekainaren 17an egin zen bileran komunalen ordenantzak aprobatu egin ziren, hemendik aurrera hauek aginduko dute denenak diren mendietan.

Orain Elkarrikoan hasi dira garbitzen gero landaketa egiteko.

Ibarlan dauden herriko bi terrenu garbitu eta han haztegi bat jarri dute.

GOIZUETA

▲ Aurtengo udaran ere, AEKkoek Goizuetan, bi ikastaro antolatu zituzten, bat uztailean eta bestea abuztuan. Giro ederra eskeini ziguten herritar guztiei.

Jokoak antolatu zituzten: mus txapelketa, bingoa... nahi zuen guztiak parte hartzea bazeukan.

Txokolatea bizkotxuekin banatu ziguten herriko enparantzan.

Herriko berriak azaltzen zituen bilduma bat ere argitaratu zuten.

▲ Abuztuaren 13tik 20ra bitarte, herriko festak ospatu genituen. Umeen joko, akordeoi eta piano kontzertuen soinu ederrekin hasi eta herri kirol, bertsolari, trikitrixa,
Etxamendi eta Larralderen abesti goxo eta sakonekin eman genien amaiera. Oso giro ona izan zen egun guztietan, inguruko jendeak ere bere bisita egin zigun, nahiz eta aurretik ohartaraziak honara etortzeko baldintza batzuk bete beharrrak zeudela. Ikusi dugu ez ziotela jaramonik egin. Eskerrikasko.

▲ Joan den ekainaren 10ean Iruñako Gaiarre antzokian. O.H.O. eskola eta ikastoletako umeen artean bertsolari txapelketa bat antolatu zuten Nafarroako Bertsolari eskolakoek. Lesaka, Bera, Elizondo, Etxarri Aranatz, Iruñako San Fermin ikastola, eta Goizuetako neska-mutilek parte hartu zutelarik.

Irabazle, Goizuetako Jon Eskudero Zugarramurdi 7garren mailako mutila izan zen.

Oinak jarri eta honelako bi bertso hauek bota zituen:

Goizuetatik (e)torri ga(ra)
gu denok kantari.
Hemen bildu gerade
jendea ugari.
Guk nahi genduke izan
gero bertsolari.
Bidean gala behintzat
ez al da nabari.

Oparitu didate
ederra lorea.
Zoragarria zeukan
bere kolorea.
Asko ikusi ditut
hori zan hobea.
Oparitu didana
bai zan dotorea.

Zorionak Jon! Horrela jarrai!



ZUGARRAMURDI

BESTAK

Pasatu ziren herriko bestak ere. Aunitz tokitan bezala, Zugarramurdin, Abuztuaren 15ean ospatzen ditugu, bainan hori ez da aitzakia izan aurten erraiteko moduan 13an hasteko bestak, aprobetxatuz larunbata zela egun horretan; hala ere 18a arte iraun dute, egun horretan urteroko zikiro-jatea egiten dugulakoz.

Eta 6 egun hauetan ez da deus espezialik gertatu. Pittat gorabehera urtero bezala izan dugu programa eta jendea ere herritarretik kanpo, gutti; pentsatu behar da inguruan herri aunitzetan bestak direla: Amaiur, Oronotz, Etxalar, Arantza, eta baita ere bertze aldean hurbil: Ainhoa, Azkain... gainera Zugarramurdi ez dago preziski toki hurbiltsuena aunitzendako. Hori bai, zikiro egunean, 18an, ez zen herrian tokirik kotxerik aparkatzeko, halako jendeketak etorri ziren eta.

Eguraldia ere erdi-ta-erdi portatu zaigu: egunaz ateri egiten zuen, bainan ia ilunabarrean, 7ak aldean, barkatu gabe, euria edo txirimiria agertzen zen (gaixoak gure amak, nolako arropak garbitu behar izaten dituzten...) Hori bai, preziski zikiro egunean, guri gehiago interesatzen zitzaikun egunean, horretan eguraldi garbigarbia atera zuen, eguzki eder eta batere lainorik gabe, jendeak erraiten zuen iduri zuela norbaitek hala espres arrimatua zuela.



ZIKIRO-JATEAREN GAIN

Eta besta kontuz ari garenean, gure "ZIKIRO-JATE"aren gain hitz batzuk erranen ditugu. Guk gaur ezagutzen dugun zikiroa 800 lagunen arteko bazkaria da; hunat etortzeko, aintzinetik 2.500 pezetetan, txartela erosi behar duzu, eta hunek, platera, basoa, kutxarea eta ogi puska lezeko sarreran hartzeko deretxoa ematen dizu gero, leze barnean zurezko aulki batzuk emanak izaten direlarik hantxe jartzeko; baina kontuz, mahairik gabe. Bazkaltzeko hau izaten da: piperrada, zikiroa, zopa, gasna, kafea, kopa eta puroa. Bitartean eta ondotik, musika alde guztietatik.

Bainan erran dudan bezala, hau, gaur egun egiten dena da, bainan lehen, duela 20 urte hurbil, zikiro-jatea herritarren bazkari bat baizik ez zen: juntatzen ziren 60 lagun gutti goiti beheiti (Saratar eta Urdazuiar batzuk kontatuz) eta hauek etxetik eraman behar zuten beren esku-zapia basoa eta nabala, lezean bakotxa ahal

zuen tokian jartzen zen: lurrean, harri kozkor batean edo egur baten gainean, eta holaxe, lehenik zikirotik hasten zen; zikiroa ogi tartean nabalaz lagundurik jaten zen; zikiroak bezperan baserrietatik erosiak eta Barrentxean, gazteek hil eta garbituak izaiten ziren; zikiroen gibela bazkari prestatzen ari zirenendako gosaria izaiten zen. Zikiroaren ondotik salda heldu zen (haragia errexago pusatzeko), salda porru, pastanagre, perrexila eta zikiroaren buru eta lepoekin egina zen; salda, baso berean edaten zen, bainan nola irakitan zegoen eskuarekin hartu beharrean, eskuzapiarekin inguratu basoa eta kider bat eginez xarmanki edaten zen. Saldaren ondotik gasna heldu zen, eta bukatzeko kafea, anisa edo koñaka eta puroa. Bazkal ondotik bi gazte igaten ziren lezearen gaineko alderat zenbat lagun ziren bazkaltzen kontatzeko, eta gero ateratzen ziren kontuak: hainbat kosta da bazkaria, honenbertze ordaindu behar du bakotxak. Eta bukatzeko eta digestionea hobeki egiteko, joaten zen lezeetatik musikarien ondotik soka dantzan herriraino, han apezaren etxerat hurbiltzen zen, hunek anisa eta koñakerat gonbidatzen zituen eta jota bat dantzatuz bueltatzen ziren berriz soka-dantzan plazarat. Eta holaxe egiten zen urtero; bainan erran dudan bezala, duela 20 urte edo zerbait horrela, uste baino jende gehiago hurbildu omen zen bazkaltzerat, bazkaria eskas ailegatu zen, eta jendea haserre gelditu zen. Ordutik aintzina erabakia hartu zen; aurretik txartelak salduko ziren, hola jakiteko segur zenbat lagunendako prestatu behar zen bazkaria. Hala ere, bazkarian piperrada emaiten ahal zela pentsatu zen, piperrada emaiteko platerak eta kutxareak banatuz. Poliki poliki jende gehiago hasi zen hurbiltzen zikirorat, eta hauek esku hutsik agertzen zirenez, basoak deneri banatzen ere hasi ginen; jendea egokiago izaiteko hasi ginen aulkiak emaiten; eta azkenean, jende gehiena kanpotarra baitzen, galdu zen ere soka-dantzaren ohitura.

Hauxe izan da gora-behera, Zikiro jateak izan duen aldakuntza. Orain besta hau herritarrendako ez da, lan gogor bat baizik; pentsatu behar da 800 laguneri bazkaltzera emaiteko eta baita ere bazkari hunen ondotik denak biltzeko eta garbitzeko, laguntza haundia behar dela, eta Zugarramurdin 325 biztanleko herri ttiki bat dela. Hori bai, bestak pastu eta 15 egunen buruan, bertze zikiro ttiki bat egiten dugu herritarren mailan; 150 lagun inguruan juntatzen gara eta honetan ia bai, soka-dantzan bukatzen dugu bazkaria herrirat ailegatu eta.

Joan den Apirilaren 4ean "KERGORNOU" izeneko dantzari taldea Zugarramurdin aritu ziren beuren dantzak eskeintzen.

EUSKALDUN IZATEA GURE ESKUALDEAN EDO QUE TE PARTA UN RAYO

Atzo, gaur, eta nork daki oraindik noiz arte, erreserbatik kanpo nahiz erreserban bizi garen euskaldunok, euskaraz bizitzea galerazten diguten oztopoz inguraturik gaude. Eta egoera honen zergatia, neurri haundi batetan behintzat, instituzioen jarreran datza. Instituzioek dute, bakoitzak bere konpetentzian egoera hau moldatzeko giltzarria.

Dena den, ezin dugu atzendu, euskararen normalizazio osoa ezinezkoa egiten duen legeria baten menpean bizi garela; Espaniako konstituzioa, alegia.

Ondorioz, Euskal Herriari euskaraz bizitzeko duen eskubide territoriala eman beharrean, euskaldun garenoi, euskaraz bizitzeko dugun eskubide indibiduala aitortzen zaigu bakarrik; hori bai, euskaldunok ditugun eskubide indibidualak bete ahal izateko inori deus esijitu gabe. Ez zaigu beraz, eskubide territoriala emaiten, eta eskeintzen zaizkigun eskubide indibidualak, deklarazio huts batetan gelditzen dira, ez bait da biderik jartzen bete daitezen.

Nafarroan, "Vascuencearen legea" ezarri zigutenetik, goian aipatutakoa, bere gordintasunik mikatzenean ikus dezakegu. Euskararen "ofizialtasuna", mendialdeko herri batzuetara mugatu dute, eta hauetan, bertako udal-administrazioen baitan utzi dute ofizialtasun hori praktikarat eramatea. Hau da, erreserbako euskaldunoi euskaraz bizitzeko dugun eskubide indibiduala onartzen zaigu, baina, eskubide hori bete ahal izateko inolako garantiarik eman gabe.

Laburbilduz, honako puntu hauetan azal genezake Vascuencearen legeak dioena:

a) Euskararen ofizialtasuna Nafarroako eremu ttiki batetara mugatzen da, Nafarroa osoarendako euskararen ofizialtasuna ukatuz. Aipatutako eremu ttiki horretan aitortzen den ofizialtasuna berriz, zeharo ustela da, legearen aplikazioa udal-administrazioen eta bertako erakundeen esku uzten bait du.

b) Eskualde euskaldunen eskubideak soilik aipatzen dira; eskubide horiek bete ahal izateko eta praktikan jartzeko bitartekoak kontutan hartu gabe.

d) Euskararen presentzia, hizkuntzaren oinarrizko mailetan (OHO) aurrikusten du bakarrik, ertain eta goi mailetan bere presentzia ukatuz.

e) Nafartarron bizi-sozialaren ardatza osatzen duten hiri haundietako ateak itxi dituzte euskararentzat, hizkuntz ez-ofizial denez.

f) Maila ezberdinetan berreuskalduntze lanetan diharduten hainbat herri erakunde, ez ditu deustarako kontutan hartzen.

g) Azken batean, Nafartar guztion ondasun kulturala den euskara ezagutzeko eta erabiltzeko ahalmena, kendu egiten zaio nafartarren gehiengoari.

HALA ERE, UDAL BATZU ARI DIRA MUGITZEN

Udalak ditugu herriarengandik hurbilago dauden erakundeak eta beraien esku dago, herri erakundeekin batera, euskararen normalkuntzaren aldeko borrokan iniziatiba hartzea eta are gehiago, Nafarroako Gobernuko agintariek euskararekiko erakusten duten utzikeria eta konpromezurik eza begibistakoa denean.

Bide horretan, ezin ukatu esperantzagarria izan daitekela, Bortzirietako Udalek hartutako konpromezua; Euskara Batzordearen eraketan parte hartzearena, alegia. Funtzionatzen dihardun denboraldi honetan, kasik urte bat, zenbait erabaki bete ahal izan ditu eta bertze batzu berriz martxan jarri; Bortzirietako estudio soziolingüistikoa dugularik aipagarriena.

Eta lan guzti hori modu egokiagoan jorratzeko, Euskararen Arazoetarako Mankomunitatea osatzea erabaki dute orain berriki.

Bide berriak urratu behar dira, eta Bortzirietako iniziatiba honek ederki frogatzen du hori. Ez dakit bertze herrietarako eredu bezala balio lezaketen, argi dagoena zera da: gogor ekin beharko dugula oraindik, euskaraz bizi ahal izateko hainbat oztopo jartzen digun legeria hau aldatzeko, baldin eta noizbait eskararen normalizaziora iritsiko bagara.

TELEIKO

UDAL GESTIOAREN EGOERA

Berriki gure herrietako udal egoeraz solasteko mahai inguruan elkartu ginen. Hemendik urte batzutara udalak zer eta nola antolatuak izanen diren aztertu ondoren, zalantza haundiak izan genituen konklusioak ateratzeko.

Lerro hauen bidez gure ikusmina azaldu nahi dizuegu guk emandako pausuak segituz konklusioak atera baino lehen gaurko arazoak zein diren aztertuko ditugu, hau da:

- Ekonomiari dagokionez, Diputazioarekiko menpekotasuna.
- Zinegotziek udal gestiorako duten ahalmena.
- Goi mailako planifikazioa gizartearen teknifikazioaren arabera egokitzea.

Lehenengo arazoan, Udaletxeen aurrekontu arrunten diru sarrera nagusienak Gobernuak egindako trasferentziak direla argi dago, aurrekontu berezietarako direnak ere iturri beretik heldu dira (% 80). Honek, gure eginahaiak baldintzatu egiten ditu. Guk aukeratutako eginkizun bat gobernuaren gustokoa ez baldin bada, ezinezkoa da aintzinera eramatea, dirulaguntza ukatu egiten bait du. Zergek ere haiek ezarritakoak izan behar dute.

Honek, izugarrizko ondorioa dakar. Herriak subentzioa lortzeko biderik ikusten ez badu, edo moztu egiten badiote, aukeratzen duen bidea hauxe da. Presupuestua bete ahal izateko, mendiko arbolak bota, deforestazioa deritzaiona.

Nafarroa hezean bizi baldin bagara ere, beldur gara gure mendietako berdetasuna ez ote den sasien berdetasuna baino. Hau da, ez ote gauden sobera denbora pasatzen ari mendietako errekurtsoen edo oihaneztapen planifikaziorik egin gabe, eskualde osoa kontutan hartuko lukeen planifikaziorik egin gabe, eskualde osoa kontutan hartuko lukeen planifikazio bat. Aunitz moztu eta gutti landatu... Naturarengandik hartzen ditugun ondasunak ez dira betikoak izanen. Martxa honetan eta horrela segituz ez da mendira jotzerik izanen, aurrekontuak betetzeko.

Zinegotzien ahalmenez berriz, zaila da hitzegitea, bati baino gehiagori kalte egin diezaiokeelako. Hala eta guztiz ere, egunero ikusten dugunari begiratzen badiogu, gestio munizipal bat egiteko ez daudela prest iduritzen zaigu.

Zergatik hori?

Mila arrazoi dira. Udaletxea gero eta urrutiagoko gauza bezala bizitzen delako. Zenbait herri txikietan Madrildik ailegatuko balitz bezala dirudielako eta ez bertako biztanleak osatutako erakunde bat. Mugatua eta urruti mantentzen delarik, zinegotzi berriak esperientzi gabeak jartzen dira, lanean berriak dira eta, gainera, ez dute jendearen partizipazioarekin kontatu ahal.

Sobera iluna paratzen ote dugu? Hala ere, jendeak parte hartzen du. Dena dela,

kritikak bai, ugari gainera! Alabantzak? Begira. Ez hemen bakarrik, inguruko herrialde gaztietan. Dakigunez, gaizki pentsa eta esatea errazagoa da ongi egindakoak aipatzea baino, baliteke heziketaren ondorioa izatea. Dena den beti txarra aditzeko ez du inork errepikatzeko gogorik. Gero eta zailagoa eginen da, martxa honetan, kandidatura osatzea.

Izan ere, nola iristen gara Udaletxetara? Batzutan, bertzerik ezean, bertzeetan etsai politikoari aurka egiteko, hauteskunde zerrendak nolanahi betez. Gehienetan zertara goazen ere jakin gabe, eta gogo gutxirekin. Gero gertatzen dena garbi dago.

Udalara ailegatuta, denborarik gehienean arazo teknikoak konpontzen aritzen gara: ur sariak, argia, karrikak, karreterak, pistak, kanposainduak, frontoiak, eta abar luze bat. Honetarako, eginkizunen planifikazioa eta tekniko batzuk aski izanen lirateke.

Guk, bertze arazoak konpondu beharko genituzke, edo saiatu bederen: langabezia, Irakaskuntza, Hirigintza, Osasuna, Kirola, Ekologia, Turismoa, Industrializazioa, Merkataritza,... Gai ugari, baina behar beharrezkoak gaurko eta biharko. Eta horretarako ez gaude prestaturik.

Hirugarren arazoa, konplexuena behar bada, argitzen saiatuko gara, laburki bada ere.

Gaurko gizartea teknifikatuz doala kontutan hartuz, planifikazioa eta serbitzuen errentabilitasuna eskatzen du, funtzionamendu egokia izan dezan. Honek zer erran nahi duen? Herritxo bakoitzak, ezin dugula deus ere egin bertzeak ahantziz.

Honela bada, ikus dezakeguna zera da: Gobernua, goi mailako planifikazioa egitera beharturik dagoela. Honek, gure- ganako kontrola handitzea, eskubideak laburtzea, murriztea eta mugatzea dakarkielarik.



Aipatutako arazo hauek ikusiz, konklusio ilun batetara ailegatu gara: epe laburrean inork ez duela zinegotzi izan nahiko. Udalek inongo eskubiderik ez badute, zertarako?.

Eta honela, egun batetik bertzera "DEKRETOZ" desagertu eginen dira. Mankomunitateak edo Udal Buruak sortuz.

Eskualde osoan ote dago horrelako arriskua

Bai, noski, nik konkretuki Maldaerrekan bere berezitasunarengandik herri txikiak eta Doneztebeko zentral eragina dela eta gertugo ikusten da, agudogo etor daiteke

Baztanen bezala, antzekoa izanen zen.

Nola ikusten dudan Baztango udal gestioa?

To! Hor bada zer esan eta zer jorratu. Luzeegia lau hitzetan laburtzeko eta, batez ere, gaizki esateko arriskua.

Ez dakigu zerbait egin daitekeen edo denboraz ga biltzan, baina Baztan, Erreka, Bidasoa mailan mahai inguru bat antolatzea gai horretaz eztabaida genezan ez litzateke gaizki etorriko.

Ea nork hartzen duen arrasto hau.

J. Etxart

«GEUREA DENA, GURETZAT»

Batzorde honen sorrera Baztango Udaletxeak hartutako erabaki mingarri bati zehazki lotuta dago.

Ikurriña, " GEURE IKURRIÑA" Udaletxeko balkoitik kentzeko akordioa hartu zenean (1.987.ko Urriaren 5ean), Baztandar aunitzi min egin zigun, batez ere erabaki honekin ikurriñari egiten zitzaion utzikeri eta mexprezua ikusten genuelakoz.

Historia pixka bat egiten badugu ikusten dugu Franko diktadorea hil zen urtetik bi urtetara, Euskalerriko udaletxe gehienak (barnean Baztangoa) ikurriñari ofizialtasuna emateko beharra izan zutela, batez ere jendearen nahiak, sensibilizazioak eta mobilizazioak bultzatu zielakoz.

Garai hartan Baztango herri guztietan bildu ziren sinadurak ikurriñaren alde, baita manifestazio galante ospatu ofizialtasuna eskatuz. Horrela 1.977.ko Otsailaren 14ean Baztango Udaletxeko zinegotziek (Beren borondateen aurka kasu gehienetan) pleno berezi batean ikurriña balkoian ofizialki egotea onartzeko beharra izan zuten.

Hamar urtez ikurriña ikusteko aukera goxoa izan genuen, baina joan den urtean Urriaren 4ean (Iturralde alkatea hil zen egunean) gure begiak harrituxeak gelditu ziren,. Totzak hi!!! Espainola, Nafarrokoa eta Baztango banderak bakarrik zintzilik jarri zituzten, Union Baztanesako zinegotzien borondate madarikatua garbiki erakutsiz, horrela ondoko egunean pleno berezi batean ikurriñari ofizialtasuna kentzeko akordioa hartu zuten 1.977. urtekoari errebokazioa emanez.

Ezin onartutako gertakizun honek bultzatu zigun Baztango kultur alorrean gabiltzan organismoei "IKURRIÑAREN ALDEKO BATZORDEA" sortzea, mundu guztieri zabaldua eta irekia, helburutzat " Ikurriña Baztango Udaletxean ezartzea" hartu genuelarik.

Ikusiz Herriko Etxe barnetik ez genuela deus ere lortzen ahal, "Kalea" hartu genuen plataformatzat eta hortik abiatu gure bideari irteera emanez.

Baztango udaletxea.

Baztanen dagoen egoera Sozio-Politikoa inongoarekin konparaezina dela deritzogu, % 85a euskalduna izanik hainbateko aunitzak euskal identitatea sentitzea oraindik ez du lortu. Hau horrela izatearen erru guztia ez diegu beraiei bakarrik bota behar, zeren eta eduki duten heziketa eta informazioak beraien mentalitatean izugarrizko mina eta pozoindura sortu bait du. Euskaldun batzuk beren nortasuna,beren hizkera ukatzea, denok dakigun faktoreei erantsia dago. Espainiako "kolonialismoak" pozoi ezin hobeak eratu bazituen ere, euskaldun zainak gure belaunaldikoak bezalaxe ukitu gabe irauten du bere indar eta kemena osorik mantenduz. Baina nola adierazi diezaiekegu euskaldun hauei beren hizkuntza euskara den bezala beren ikurra Ikurriña dela eta ez bertzerik?.

Ez dakigu nozbait, batzen joan den euskaldun aurkako kontzientziazio hori nolabait apurtuko dugunik, baina garbi daukaguna gure eginahalak eta ahalmen guztiak jarri behar ditugula gure zain horiek egunen batean beren fruituak eman ditzaten.

Urte guztian egin ditugun ekintzetakoetatik ditugu: Manifestazio bat Otsailean antolatzea (arrakastatsua gertatu zelarik), herrietako bestetan pankarta erreibindikatiboak jartzea, pegatak saltzea, mozioak sartzea eta azkenekoa "Ikurriñaren eguna" antolatzea.

Udaletxeak oztopo ugari paratu dizkigu gure kanpaina galerazi nahiez (baimenik ez ematea pankartak jartzeko, ez onartzea eskaerak euskaraz bakarrik zeudelakoz e.a.), bainan bere ipurdiko minarendako erraten diegu gure teman jarraituko dugula, hau da, Ikurriña Baztango jende gehiengoari ukatzen diguten bitartean, ele eta ele aldarrikatzen jarraituko dugula, geurea dena geuretzat izan arte.

BAZTANGO IKURRIÑAREN ALDEKO BATZORDEA
(B. I. A. B.)

BAZTANDARREN BILTZARRA

Dakizuenez oinarrizko eskubideen artean ditugu: hizkuntza bat mintzatzea, herriak elkartzea, entseinak erabiltzea, nortasuna erreibindikatzea, hau da herri baten patrimoniok zaintzea edo berreskuratzea, eskubide hauek hitzaz eta ekintzaz debekatuak zeuden unean sortu zen Baztandarren Biltzarra 1963garren urtean. Aurten zilarrezko eztaiak ospatzen dituenean, badirudi aurrean aipatu ditudan eskubideak hitzaz behintzat onartuak direla, baina ez ordea praktikara eramatean.

Instituzio munizipaletatik hasita gobernu zentralerainoko jerarkia guztiak osatzen dituzten jauntxoak, errealitate triste honen bazkatzale dira. Mundu materializatu honetan pertsonen baloreek, balore guti daukate. Diktadura gogorrenetan bezalaxe herri mugimendua ixilerazten bait dute, zuzenki ez bada ere bai metodo sofistikatuak erabiliz eta itxurez behintzat disimulo haundiarekin autolatuak jendearen gehiengoari zuzenduak, "demokrazian" bizi garen gero eta gehiengoak balio duenez,beraien XXI garren mendeko diktadura mota, gizarte honetan baliogarria da.

Erreflexio hau egin ondoren batenbatek pentsa dezake, zoro honek kriston aldaketa eman nahi diola mundu honi, beharbada bertze aldera itzulika jarriz. Nere adierazpena hori dena baino xinpleagokoa da.

Baztandarren Biltzarren helburu nagusia Baztango hamabortz herrien elkartasuna lortzea da, kanpoko jendeari nor garen azaltzen dion bitartean. Urtean behin besta euskaldun baten inguruan bilduz, berari dagokion bezala. Modu honetan bestaren izena daraman elkartea sortu zen 1976 garren urtean gazteen ekimenez, udalak biltzar honetaz ezerrez jakin nahi ez zuelarik, Elkarte honek ekintza ezberdinak antolatzen hasi zen, horietatoak ditugu kultur hamabostaldiak eguberritan, Nafarroako Kantu lehiaketa e.a.

Nafarroako gobernu zibilak elkartearen sorreraren opari gisa ehundaka polizi bidali zituen urte horretako Baztandarren Biltzarra ediziora, besta apurtuz. Berdin gertatuko zen 1986garren edizioa ospatzerakoan. Gainerako edizioetan Baztandarrok horrelako oparirik hartzeko zoririk izan ez badugu, bai bestelako ostikada eta oztopoak.

Gaur egun Baztango udalak elkartearekiko duen jarrera ez da aldatu: nahiz eta bera izan Baztango herri guztiak batzen dituen erakunde bakarra ez du Biltzar hau ofizialki onartzen, Baztango bandera ez digu uzten, ikurriña ez du onartzen, bere burua garbitzeko subentzio alkemangarri bat ematen digu (orain dela bortz urteko berbera), baimen ezberdin batzu xuhurki laxatuz eta gehiengoak ukatuz, dena dela hamabortz herrietako jende gehiengoaren borondatea eta nahiaren aurka doa.

Baztandarren Biltzarrak oztopo guztiak gaindituz 25garren urtea betetzera iritsi da. Aurtengoa gainerakoek baino arrakastatsuagoa gertatu da egundaino baino eginkizun gehiagorekin eta jendearen parte hartzearekin. Hemen daukagu adibide argi bat, nola herriko jendeak zerbait sentitzen duenean lortzen duela, nahiz eta instituzio despotizatu hauek beren teman jarraitu.

Baztango inguruko bailara batzu Baztandarren Biltzarraren linea jarraitu dute bailararen egunak antolatuz eta herriak elkartuz. Batzu arrakasta haundirekin eta bertzeak gutiagorekin airtzinat eraman dute.

Nere nahia izanen litzateke aurtengo 25garren biltzarraren edizioak eragin positiboa izatea batez ere besta adibidetzat hartu dutenen artean. Modu honetan bakoitzak geuren etxeak landuz aunitz lortu dezakegu Nafarroa eta Euskalerriarentzat, gizarte eskubideak geuren helburuak lortzeko bide izan daitezen.

MIKEL IRIARTE

Baztani buruz zertxobait gehiago


Arizkunenea Elizondo

BAZTANGO BAILARA

Zabala bezain ederra omen da Baztango bailara, edertasunez neurririk ez badu, zabaltasunez neurri handikoa dugu, 273,85 km2. eta Nafarroako 265 udal etatik zabalena denez gero Herrikoetxearen babesean 15 herri biltzen dire bailara hunen batasuna osatuz.

Nafarroako herrialde gehienen gisara Baztango bailara ere atzerriratu edo emigrazioaren zanpak joa du. Azken urte hauetan 1.500 biztanle galdu ditu (kontutan har 1.930ean 9.680 biztanle zituela Baztanek eta orain 8.200 inguruan dauzkala). Gaur egun bestalde, erran beharra dago, Baztan herrialde zahartua bezala aurkitzen dela etnografia aldetik.

Historikoki Baztan beste Nafarroako bailara gisa, jaun baten babesean agertzen den lurralde bat da, hau erranen genuke "vizcondado" deitzen den lurraldetxoa izan dela ikusiz horrela diola 1.168 garren urteko agerkai batek. Bestalde Baztan 1.577garren urte arte Bayonako apezpiku menpean egon zen eta 1.441ean Principe de Viana eikari baten bitartez erregen hautari eta lurralden jendeztanle bihurtzen da. Bailara hau, betitik lotua egon da bere batasunari eta horrela irakur dezakegu 1.631garren urteko agerkai batean: "La dicha Valle se compone de catorce lugares y parroquias es una sola casa, un solar y una Iglesia, como esta declarado en la ejecutoria que tiene ganada". Hemendik baizik har dezakegu Baztanen aurkitzen den bereiztasun haundiena, hau da, bere komunal eremuak, (28.000 hektareaz gain, %tik 84 lurrune), Alkate eta armarri bat denentzat, eta lartegi berak guzientzat.

BAZTANGO ARAUAK EDO ORDENANTZAK

Argi eta zintzoak izan ziren herriaren gobernuko. Lehenak eta eskuidatziz eginak 1.544 urtekoak agertu izan dira. Ondotik, beste zenbait urtetakoak eta inprimituak jaso ziren 1.696, 1.733 urtekoak eta "berriak" bezala deitu izan direnak 1.832garren urtekoak.

Apirilaren 29an eta 1.560garren urtean, bailarako alkate, Gartzaingo Iturbide Santxo jauna alkate zela, bildu zen bailarako "Junta" edo Batzar Nagusia eta bertan erabaki zen beharrezkoa gertatzen zela ordenantzen barruan biltzea, herriko alkate hautatze egin bidea eta komunaleen baliatzea. Horrela, gaurko egun hauteraino Baztango bailarak bere arau edo ordenantzen bitartez antolatua du bere erakunde eta administralgoa.



JUNTA EDO BATZAR NAGUSIA

Baztango bailarak duen erakunde nagusii eta haundiena dugu "Junta General" edo Batzar Nagusia den organismo hau. Oirain dela urte batzuk, bailara dena diardaratzen zen Batzarre hau biltzen zen aldiero. Bertan erabakitzen baitziren Baztan guziaren arazoen ordainak. Gaur egun ere, baztandar guziak erne egoten dira Batzarre Nagusiaren erabakiairi.

Batzarre honen kideak hamabortz herriko alkateak, hamairu zinegotzi eta lau "juntero" deitzen diren hautatuak dira. Bainan, lehen, dakigunez, baztandar nahi zuten guztiak biltzen zituen Batzarre edo Junta honek. Baina hainbertzetaraino zabaldu ziren hango zalapartak, ezinezkoa bihurtu zen eta 1.658 urtean ehun lagunetara laburtu zituzten Batzarraren ordezpenak. Hala eta guztiz berriro 1.683 garren urtean horrelako iskanbila, zarata eta oihuak omen ziren eta agerkai

batek dionez " para mexor acordar, resolber y determinar todos los casos y negocios, asi en lo militar como en lo politico" laburtu zuten berrogei eta hamar kideetara Batzar Nagusia. Batzarraren kideen agintza urte bateko izaten zen eta beharrezko edo ezin ukatua izaten den aginbidea zen. Batzarre Nagusi hau arduradun izaten da komunal eremuen gain, bide, oihan, eta luberri arazotan gehienbat. Lau aldiz urtean biltzen da beharrezkoz, hiru Bazko biramunetan eta S. Miguel egunekin.

HERRIKO BATZARREAK

Batzarre Nagusi edo Juntaren oinarria dugu herriko Batzarreak Baztango herri guztietan herri arazoak Batzarrean aztertu eta erabakitzen dire. Batzarre horrek herri erakunde baten indarra dauka eta aipatutako arau edo ordenantzetan bildua dago. Herriko "Juradoa", hau da, Batzarre Nagusi edo Juntako ordezkaria dugu batzarrean hautatua izaten den herriko alkatea bezala.

Hauteskunde hauek, bi urtetik egiten dira eta Eguberri egunean herriko Meza Nagusi ondoan, herri guztia Batzarrean bildurik, aurkezten dire hautagaiak. Han bertan nahi duenak nahi erran ondoren hautatzen da eta errege egunean hartzen du bere kargua.

Urtean zehar egin daitezke nahi edo beharrez ikusten diren Batzarreak. Batzarrean Hautatzen diren "juradoak" Juntako ordezkariak dira baina ez du zertaz izan herriko alkatea, gehienetan edo beti horrela gertatu, zeren eta herriko alkatea bailarako alkatearen ordezkari denez geroz, bailarako alkateak izenpetzen du bere ordezkaria, erran bezala, herriak hautatutako juradoa izenpetzen du herriko alkate bezala.

HERRIKOETXE EDO UDALA

Bertze edozein herrietako hauteskunde bitartez egiten diren bezalaxe hautatzen dira, hamairu zinegotzi. Bailara guzia herri bat izanen balitz bezala erabiliz eta bailara guziko jendearekin osatutako zerrendaren bidez antolatzen da Baztango udala. Bailarako alkatea denbora bertan Batzarre Nagusiaren lehendakari da eta zinegotziak batzarkideak.

Bukaera

Zirritoatetik sartzen den argia, gutti izanik, nahikoa izaten da nabarmentzeko ikusten denari buruz. Hemen ere, argi txikia da nolabait konturatzeko Baztango erakundeen inguruan dagoen bereiztasun aipagarri hori, baina zirrito baten argi ttipi bezain laguntzaile gertatzen bada idatzi hau, nahikoa izango litzateke kontutan hartzeko gure herriek beren gobernuko eman izan dituzten erakundeak sendo bezain neurrizko eta herrikoi izan direla. Jarrai dezagun gure ohiturekin herriaren onerako.

M. GARDE

AI ENE!!

Aspaldi ez naiz hemen agertu, papertxo honetan. Hiru edo lau urte?. Blas naiz. Bordatxori buruz edo artzai berriez idazten zuena.

Zertan eman dudan denboraldi hau? Zuri ez zaizu inporta! konfidantza bai, gehikeririk ez, aizu!

Dena den, orduko lanari, berriz ere jarraitzeko asmoz heldu naiz: inguru hauek, bertako jendea, arrotz batek begiraturik zer nolakoak ikusten diren agertzera.

Garai hartan sinpleegia ikusten nuen nere lana. Urte hauek gaia sakontzen pasa ondoren erabaki bakar batera ailegatu naiz: Hobe sinplekerietan segi! Baztan, Malaerreka, Bidasoa, Leitza, Goizueta, mundu bat dugu,Joxe Mari! ez ttikia gainera. Gehiago erranen dizuet: Edozein barrido edo auzo txiki txar batek oso mundu konplexua dugu, errespetu piska batez begiratzen badugu, barrendik aztertuz gero ... Hitz gutxitan, lehen nuen ausardia galdu dut eta alde guztietatik konplexutasuna bertzerik ez dut ikusten. Atzentzen zitzaidan: artikuloaren gaia hauxe dugu:"ESKUALDEA ETA BERE JENDAIRA".

Luzea eta gaizki egina dugu eskualdea, eskualdea baldin bada. Berdea, zaharra eta helgabekoa. TtipiTtapa dugu jadanik, elkarren artean egiten dugun gauza bakarra.

Ez da, zoritxarrez, ahoberokeria bat, Amalia! Egitafedea! Pentsa! Zer ikusteko du Leitzeko punki batek, Berroetako Eustakio batekin?, edo Azpilikuetako Herija Goizuetako Peio eta Pantxorekin?, Lesakako ekologista modernoak Doneztebeko sasimerkatariekin?, Elizondoko kontrabandistak Laminazionesetako langile porrokatu batekin?, bai ote dira?, Beratar kulto motel batek Zubietako tarta mutuarekin? Zu eta ni!.

Hizkuntza bera hartu eta, erran, zergatik dirudi Himalaya 800 metrotako mendixka bat? Herriz herri euskalkiak, etxez etxe, estutzen banauzu, aberatsa, polita! Hori bai, eskualde bat izan beharrean, Noeren arka dugu., neurriak gorde eta New York sakabanatua., eta Lesakako Zialdo ingurua Brasildarren kolonia!.

Ez dago hemen beldurrik, momentuz, denak berdinak, eredu batekoak, sortzez. Gureak eginen duela pentsatzeak bakarrik beldur gaitzake, eta hori, gibeletik heldu direnek konpon dezatela ahal badute. Hirugarren adin hori, hogeitamar urtekin hastea gure helburua, langabezitik jubilaziora!.

Nik garbi dudan gauza bakarra zera da, edozein herritan deputamadre bizitzen dela. Inongo iskanbilik gabe, denak senide... Uy, Uy, Uy! Senideen arteko muturka aritzeak! Maitasunaren gordinkeriak! Nafar hezearen bukolismoa!... Euskadi gora? Beno,beno! Bazter ditzagun galdera ergelak. Zuk eta nik ongi dakigu. Bat etorriko bagina!.

Onena, benebenetan, behingoz Gobernua argi eta garbi gure kontra agertzea izan zen. Ez egun bezala, bazter batetan atzenduak mantentzea, Euskal indioen erreserban! Ez! Aurka hitzegin eta ekin gure arteko batasuna bultzaturik. Orduan bai, bat eginik, biba Kristo Rey deadarkatuz edo, " Gora Errepublika",... baina denek batera, Gazteluko leize zulora.

Honeraino iritsi bazara konklusio garbia izanen duzu: lerroak kontatu eta zenbat lan egin dudan jakinen duzu: bat; bertzea, deseskualde honetan bi pertsona berdinik ez dagoela; hirugarrena, orain dela urte batzu kontatzen zen bezala:

Ke pasa en el Kongo?
Ke al blanco ke le cojan,
lo hazen mondongo!
Atera zait berriro ere bertsolarizaina!
Irakurle maitia
Zuk bai borondatia
nahi baduzu mamia
buelta ezazu orria.

Ez zaitut, azterketa sozio-makro-ekonomiko batez lo eraginen: Jakinen banu! Azken finean, non dago horretan ongi oinarritutako herrialde bat?. Gure inguruan ez behintzat! Jakina da, bertzealde, diruak ez duela zoriontasunik ematen. Itxura bertzerik ez omen da!.

Ez dugu guk itxura beharrik, benetazko zoriontasuna bai,... denak batera: Zoriontasuna behar dugu... dirua edukitzea ez badago, non dago zoriontasuna? ...Gosea zer den atzendua dugu, zaharrek diotenez... Sakelerako dirurik ere, gehixeago edo guttixeago, ez zaigu falta. .. Zer da orduan, behar duguna?... AMODIOA! Hementxe dugu gakoa, gure herriak hustutzearen arrazoia, hainbertze mutil zaharren ametsa, neska askoren beharra, senaremazte gehiengoaren putzu beltzan.

Amodio gutti eta lan gehiegi egitea da gure eritasuna, Ttipi- Ttaparekin batera gure eskualdea ezagutarazten duena.

Ez duzula sinesten? Begira... Zer imajina datorkizu burura Brasil aipatzerakoan? : Iñotik, katxondeoa, larrujotze ugari, ondartzak, dantza lizunak, gelditzen ez diren ginar galantak, relajo, ... Zein da hango fama? Urte guziko lana bestetan erretzea omen dute helburu. Beti ez daitekeela horrela izan? Famak ez duela egia osoa kontatzen? Baliteke.

.. Hobe erranda, bai arrazoi duzu, famak ez du behin ere egi osoa azaldu,... Dena den , zein da gurea? Zein gure dantza, Zein gure helburua?.

Beti ez daitekeela horrela izan? Famak ez duela egia osoa kontatzen? Baliteke. .. Hobe erranda, bai arrazoi duzu, famak ez du behin ere egi osoa azaldu,... Dena den , zein da gurea? Zein gure dantza, Zein gure helburua?.

Lana ere, egin beharrez... eta gero eta guttiago, bai,... lana izatea hagitz zaila delako eta gure ideologia aldatuz doaienez,... Baina, hala eta guztiz ere

lan egitea, langile izatea helburu jakinik gabe, ongi ikusia dugu, pertsona baten ezaugarri ona. Dantza bera, nola egiten duzu? Zein helburuz jantzirik? Sasoia eta indarra, hanketakoa batez ere, erakusteko modua dugu, herri ibiltaria garenez... Kirolak,bertakoak, gauza bera erakusten dute... Gure emakumeak ere ezaugarri hori dute, izugarri langile direlako, betidanik kanpotarrentzako harridura motiboa... eta txarra al da lan egitea? Ez, neurri batean bada behintzat. Neurria, beti neurria, orain arte alor txarrean kokatu dugun gauza... Zer izan dira, guretzat neurtu, mugatu behar diren ekintzak? Plazerra sortzen zutenak. Amodioa batez ere... Amodioa lana bihurtzen bait genuen... Ezetz?... Pentsa... Amodioa egin beharrean larru jotzea bait zen gurea...

Behin, ez aspaldi, parrandaren ondorioa ezin gaindituz, ardoa, magra eta arraultze prexituen artean, adineko gizon batek eskeini zigun bere iritzia, mutil gazte guztiak ikasi behar dutena.

Larru jotzaile famatua bera, badakit nongo ama-alabarekin egon zen orduko ipuia eskatu eta, abiatuz gero... Bere oroimenik politena bota zuen... Soldaduzka garaiakoa... Hogei urte zituen gailurrekoa: Hiru gauez, hiruna aldiz egin omen zuen... Hura... Tipo kastigadorea! Nola horrelako lorpenik? Aisa! esplikatzen zuen, berak. Zakila sartu orduko ateri, hori omen zen dena!... Irria ezin gorderik egon nintzen. Hori al da plazerra? Jakin dut, gero, ez dela gizon hori, teoria horren defendatzaile bakarra, hau nere harridura! Amodioa, joku luzea, ohatzetik aparteko ordu pila, egun osoa eskatzen duen gauza, larru jotze bihurtuz gero, lana bihurtzen da. Plazerra, zurea eta zure lagunena, ez da helburua. Hemen ere sartu dugu apostua, kirolaren giroa. Eska dezagun garbi behin eta berriro, Brasilgo Ba_____ jumelaje egitea. Gora beti gure eskualde brasi-.

BLAS.



Emakumeak, batez ere etxeko-andreak, gizonezkoak baino hiru aldiz gehiagotan izaten dituzte depresioak eta bi aldiz gehiago berriz, ez-ongitasun psikologikoak (hau da, urduritasunak, nerbio krisiak, amesgaiztoak) eta "nerbioak" direla medio ez-ongitasun fisikoak (esate baterako: nekea, buruko mina, zorabioak, takikardiak, ...)

Egoera hauek arrazoi desberdinengatik gertatu arren, behar bada arrazoi garrantzitsuenak psikosozial motatakoak izaten dira eta horietaz ohartuz gero konponbideak bilatzera jo beharko genuke.

Aunitzetan, emakumearen etxeko lana, pisua da, ez du bere burua maitatzen ezta bere biziaz pozik sentitzen.

Aldi berean, ez du "laguntza sozial" handirik izaten, hau da, aunitzetan ez da maitatua sentitzen, ez du ikusten bere burutaz inor arduratzen denik, ez da baloratua eta estimatua eta anitzetan ez da sozialki dagokion eskubide eta eginbehar guztien jabe.

Normalean, laguntza sozialak txikiak izaten dira berarentzat: "gauzak aldatzeko" ezer gutxi egin dezake. Eta, bere etxeko girotik atera nahiez gero, leku gutxitara joan daiteke.

Berez txarrak diren zailtasun hauek oraindik gehiagotzen dira beste zirkustantzi batzuk sartzen badira tartean, horrela bada sortzen dira hainbat eta hainbat "nerbiotako problemak" emakumezkoetan. Esate baterako:

- Bikotean edo parejan, komunikazio txarra edo eskasa baldin badago. Hau da, emakumeak, etxeko andreak, ezin badu bere senarrarekin inongo planik egin, ez berarekin ateratzeko ezta solasteko ere. Ez bada pozik sentitzen berarekin, edo ezkontza barnean arazoak badaude, oraindik hutsune handiagoa nabarituko du, kartzela baten barruan sentituko da eta ondorio gisa bere osasun mentala arriskutan egonen da.

- Bakardadea eta isolamendu soziala badago; hain zuzen ere, bere etxeaz arduratzen den emakumea, lagunik gabe, bere jatorrizko familiatik urrun, bere herritik, bere jendetik aparte badago "itto egiten" ari den sentsazioa izan dezake, batez ere ez duelako gustoko girorik eta ondorioz angustia eta tristura handia bere barnean izan.

- Ardura handiak baditu eta sobera lan egiten badu berriz, bere burua "pott" egin da gelditzeko arriskua du eta baita arestian aipatu ditugun ezongitasun psikosomatikoaz eritzeko ere. Batez ere, emakume batek seme-alaba anitz baditu edo pertsona adintu batekin biziz gero edo eriren bat bere kargu izanez gero, nahiz eta anitz maitatu eta ongi zaindu nahi, bizi daiteke izugarrizko tentsioan, batez ere ez badu laguntzarik edo lana errezteko mediorik.

- Ustegabean gertatzen diren hausturak, esate baterako, maite den pertsona baten heriotza dela, edo ezkontzaren porrota, seme-alaba batek bere bizia egiten hastea edo langabezia, edo etxebizitza aldatzeak, depresioak edo nerbio nahasketak izateko arrazoiak izan daitezke.

Datu hauek jakin ondoren, eta batez ere emakumezkoengan eta bereziki etxeko andreetan sortzen diren hainbat arazo psikologikoak kontutan izanik, komunitatearen ardura da nolabait ere neurriak hartzea, hain zuzen ere arazo horiek ez sortzeko.

Beraz, premiazkoak diren helburuak hauexek dira:

1.- Bikotearen arteko harremanen kalitatea hobetzea.

2.- Ohiturak aldatzea, hain zuzen ere gizonezkoek heuren familiari atentzio gehiago emateko eta batez ere senar-emazteak maizago elkar ateratzeko eta beuren denbora librea elkarrekin planak egiten aritzeko.

3.- Emakumezkoen arteko bilkurak eta ekintzak izaten laguntzea.

4.- Konfiantza ezak eta berritsukeriak (erranmerranak) alde batera utziz, hain zuzen ere pertsonen bakartasuna sortzen dutelako eta aldiz, harrerazko eta lagunkidetasunezko sentimentuak bultzatzea.



5.- Emakumezkoa sozialki bultzatzea, batez ere bere buruaz estima handiagoa izateko eta baita bere ahalmen soziala gehitzeko. Helburu hau aurrera eramateko, herri mailako zentru kulturalak bultzatuz.

6.- Nahi duten emakumezkoentzat berriz, beste mota batetako ekintzak bultzatzea, etxetik kanpokoak; ekintza horien artean ordaindutakoak ere izan daitezke. Horrela, emakumeek, etxetik kanpo, beste gauzetan aritzeko aukera ere izanen dute.

7.- Etxeko bizi-baldintzak hobetzea, baita etxeko lana egiteko erreztasuna izatea, hain zuzen ere lan hori ez izateko pisugarria eta ahal den eta denbora libreagoa gelditzeko, batez ere arestian aipatu ditugun beste funtziotan parte hartzeko.

OSASUN MENTALEKO TALDEA

IKASTOLAK ITXI?

NAFAR GOBERNUAREN

ERASOALDI

BERRI

BAT

Euskararen normalizatze bidean urratsak ematen ari dira, baina zein neketsua den bide hori! Oztopatzen eta ezintzen ari direnak aunitz dira eta indartsuak. Lekuko, Nafar Gobernuak aurten eman dituen Foru dekretu eta Dekretu egitasmo zenbait: eskoletako euskal irakaskuntzari buruz, Helduen Alfabetatzeari buruz eta Ikastolen etorkizunari buruz. Hemen, azkenengoaren aipamen berezia eginen dugu, "Nafarroa Oinez" inguruan idazten baitugu, Lesakako Ikastola protagonista dela bai ihardunaldi horren antolaketan, bai ikastolei buruzko Dekretu egitasmoan.



Foru Dekretu Proiektuaren edukia.

1) Legeztatu-gabeko ikastolen desagerpena: 1990eko abuztuaren 30erako, hogeita bederatzi ikastolek ateak itxi behar dituzte. Honako hauek:

A. Lesaka
Leitza
Hiruerri
Etxalar
Igantzi
Goizueta
Doneztebe
Sunbilla
Agoitz
Olazagutia
Urdiain
Bakaikoa
Arbizu
Lakuntza
Uharte-Arakil
Irurtzun
Lekunberri
Iaben

B. Auritz (Burgete)
Aurizperri
Otsagi
Jaurrieta
Gares (Puente)
Eugi

C. Sartaguda
Lunbier
Zangotza
Biana
Tutera

2) A. zerrendako ikastolei, Estatu Eskola Publikoan sartzea eskatzen zaie eta berarekin bat egitea. Horren ordez, herri horietako eskoletan euskarazko irakaskuntza emanen dela agintzen da.

Agindu hori gezurrezko hitza da, noski. Aurtengo maiatzako 19an argitaratutako Foru Dekretuak dioenez, euskaldun lurraldean, euskarazko irakaskuntza borondatezkoa izanen da, haurren gurasoek nahi dutenaren arabera. Horrez gain, irakasleen zaletasun eta gogo ezberdinak kontutan hartuz, non gelditzen da euskaraz irakasteko garantia?

B. zerrendako ikastolei, Estatuaren Eskola Publikoan sartzea eskatzen zaie eta, ordez, eskola horretan euskara ikasgai izanen da, bi edo hiru orduz astean.

C. zerrendakoek ez daukate aukerarik, nahiz, elkarrizketa bidea emanen zaiela gai horretaz, erran.

3) Ikastola horiek, denek, Gobernuaren eskaera eta eskaintzari uko egiten ahal diote. Baina hor doakie amenazoa ere: Nafar Gobernuko diru laguntza erabat ukatuko zaie.

4) Argigarri da, Foru Gobernuak iskribuan erabiltzen duen hizkera. Dekretu proiektuari, "Ikastola Federakundearekin elkarrizketaratzeko oinarrizko agiria" deitzen dio.

Elkarrizketa horren helburua, "Nafarroan gaur ari diren Ikastola guztien baimenketa eta legeztapena da". Eta, ikusi dugunez, lauetatik hiru ikastola ixtea proposatzen du. Ez dugu ulertzen, nola autorizatu eta legalizatu daitekeen Ikastola, itxierazi bertze biderik eskeintzen ez duenean.

"Gaurko egoera normaldu nahi da. Horregatik, ez da baimen gabeko ikastola berririk, irekitzen utziko". Legezko baimenaren baldintzak gogorrak dira: O.H.O. (Oinarrizko Hezkuntza Orokorra) oso-osoa behar da eman Ikastola bakoitzean; (15) haurren gutxiengoa burutu behar du ikasturte eta gela bakoitzak; lekuaren neurriak, tresneria eta zerbitzuak, e.a. Eman diezaiegun begirada bat gure herrietako eskolei, eta arestian aipatutako lege eskakizunen arabera, aunitz itxi beharko lirateke. Baina horiek ESTATUAREN ESKOLA PUBLIKOAK dira, eta Estatuak legea, berak nahi bezalakoa egin eta berak nahi duenari betearazten dio. Erdarazko eskolari ez; erraztasun guztiak behar baititu.



Euskarazko eskolari berriz ahal den oztopo guztia jarri behar zaio, euskarazkoa baita.

5) Ikastoletako irakasleak Nafar Gobernuaren esku geldituko dira, eta honek nahi duen ikastetxeetan irakatsiko dute. Eta horretan segurtasuna ukan dezaten, oposizio-lehiaketa jasan beharko dute. Euskara eskoletan garantiza dezan, ikastolako irakasleak, euskaldunak, eta euskaltzaleak normalki, ez ditu eskolan sartzen utzi nahi. Zer itxura du honek? Irakasleak, urtetan lanean ari edota tituloa izanik ere, lehiaketa batzuren emaitzetatik zintzilik gelditzen dira. Ez aprobatuz gero, hirugarrenean, lanik gabe gelditzen bait dira.

GEHIGARRI GISA

Ikastolei buruzko Dekretu-projektu hau, legez oraindik hori da: proiektua. Baina bere edukia eguneroko errealitatea bilakatzen ari da. Ikus, bertzela.

Lesakako ikastola ixtearen alde, Nafar Gobernuak, Zangotzako ikastolaren etxe berria finantziatuko luke. Ikastola Federakuntzari horrela errana, omen.

Joan berri den abuztuaren azken egunetan jakin dugunez, ikastola ttiki batzuri diru laguntza ukatu egin die Nafar Gobernuak, hasteko dagoen ikasturtea burutu ez dezaten. Eta bertze zenbait ikastolari, gutitu egin zaio laguntza. Denetara, hamabortz bat ikastola ukitu ditu azken erabaki horrek.

Ikastola haundi eta legeztatuetan ere, gela kopurua tikitze alde laguntza eskeintzen ari da Foru Gobernua.

P.A.

BEHIN BATEAN



Behin batean, ba omen zen "LURRA" izeneko espazial untzi bat. Bertako "ASTONAUTEK" beraien probisioak mugarik gabekoak zirela uste zuten. Jan eta edan ausarki egiten omen zuten, hori bai, zaborrak nora botatzen zituzten begiratu gabe. Konbustiblea ere, erre eta erre, keari irtenbiderik eman gabe. Batetik bertzera, probisiorik eta konbustiblerik gabe gelditu zirela ohartu ziren. Baina, beranduegi zen okerrak zuzentzeko, eta nabea kontrolik gabe gelditu zen, espazioa desintegratuz.

Gu berriz, oraindik ere denboraz gabiltza zerbait zuzentzeko. Ongi izatea, ekonomiaren mugarik gabeko hazieran oinarrituz ezin dugu segitu. Haziera honek, munduko erreserbak agortu eta ingurugiroa zikinkeria boltsa bilakatuko duela jakinez. Batzuren ondasuna, bertzeen miseriaz baliatuz ezin dugu lortu. Egoera jasangaitz honi benetako irtenbideak emateko ordua da.

Aski da! "SISTEMA" deitutako fantasma horri errua leporatzeari utz diezaiogun, gure jokaeren bidez gauzatutakoa bertzerik ez baita. Zerbait egitekotan, betiko baloreak alde batera utziz, bizimodu arruntagoetara itzuli beharko dugu, naturarengandik hurbilago, printzipio honi jarraituz:

"EGITEKO BIZI EZ BAINO, BIZITZEKO EGIN"

Eta bukatzeko historiotxo bat:

Iparraldeko industrari bat, hegoaldeko arrantzale bat kaia bazterrean pipaga erretzen ari zela, ikusi zuenean, harritua gelditu zen, eta honela galdetu zion:

- Zergatik ez zara arrantzara joan?
- Gaurkoz nahiko harrapatu dudalako - erantzun zion arrantzaleak.
- Eta, zergatik ez duzu behar duzuna baino gehiago harrapatzen? - Berriz ere, industrariak.
-Eta, zer eginen dut arrantza horrekin?- arrantzaleak.
- Diru gehiago irabazi, diru horrekin txalupari motorra jarri, horrela itsas barrura joan, eta arrantza gehiago egin. Horrela diru aunitz irabazi, eta naylonezko sareak erosi. Gero bigarren txalupa bat, eta ahal izanez gero arrantzarako flota bat. Eta orduan, aberatsa izanen zara, ni bezala.
- Eta, zer eginen nuke nik orduan? - galdetu zion arrantzaleak.
- Exeri eta biziaz gozatu.
- Eta, zer egiten ari naiz ba ni, orain? erran zuen pozez beterik arrantzaleak.

J. Etxart

EKIN EUSKARARI!!

Bortzirietako eta Malaerrekako AEKk kurtso berri bati ekin dio. Joan den hilabete horretan ikusi ahal izan dugu gure herrietan zehar AEKk gure hizkuntza berreskuratzeko bidean, euskara ikasi eta alfabetatzeko ematen digun eskeintza.

Erran behar aurten lehenengo aldiz udalek ere parte hartu dutela lan honetan eta Bortzirietako udalek nola Bertizaranakoek, beuren herrietako biztanle guztiei eskutitz bat bidali diela euskara ikasteak eta alfabetatzeak duen garrantzia aipatuz; bai gure seme-alaben heziketarako bai gure hizkuntza berreskuratzeko. Bidenabar AEKk ematen dien aukera eta eskeintza goraipatuz eta matrikulatzera konbidatuz.

Espero dugu iniziatiba hau ez dela horretan geldituko eta hemendik aintzinera udalek konpromezu serio bat hartuko dutela, bertze erakunde herritarrekin batera, gure hizkuntza berreskuratzeko eta sendotzeko bidean, elkarlanean tinko jarraitzeko. Denaren beharra izanen bait da lan hau aintzinera ateratzekotan.

IKAS DEZAGUN GURE HIZKUNTZA !!

HONELAKOAK BAGENEKIZKIEN

Saia gaitezen berreskuratzen... erabiliz

"Lehengo aldiko erauntsiak arto gu ziak ixahutu ditu. Sobalo batean denak lurraren kontra jarri ditu. Eta ezin zara landan sartu ere egin, lurra arront lekeda baitago eta oinetakoak enbokatu bertzerik ez baituzu eginen".

Orri honetan artifizial samarra gelditzen bada ere,baserritar bati horrelako zerbait entzutea ez da hain bitxia. Eta beldur gara hitz horietako zenbaiten erranahia atzenduxea ez ote dugun. Adibidez:

IXAHUTU: Hiztegian begiratuz gero XAHUTU azaltzen da, baina guk hemen idatzi dugun moduan dugu entzuna. Eta zer erran nahi du? Adiera bat baino gehiago ditu: 1. Desegin, hondatu. 2. Gastatu (dirua) 3. Garbitu, txukundu. 4. IXAHUTUA EGON. (Lur jota egon)

Guretako lehenbizikoa eta laugarrena dira ezagunenak.

SOBALO: Superfizie edo azalera baten barrenean zerbaigatik bereizten den gunea: "mancha", "corro".

LEKEDA: Gauza beratza eta itsaskorra, itxekitzen dena.

ENBOKATU: Zikindu. Erdarazko "pringarse" hitzaren baliokide izanen litzateke gure ustez. "Tailer batean hasi naiz lanean eta egunero koipez eta olioz enbokatzen dut buzoa". "Zelaia bustibustia zegoen eta futbolariak lohiz enbokatuak zeuden partidua amaitzean".

Bortziriak eta Maldaerrekako AEK

POTROKILO

Adizu... jar ezazu plastiko bat zure marrubien gainean
bestela euliak etorriko zaizkuzu
eta gero, euliak mere banabiletera etorriko dira.
eta honek?
AAAAA...
TCHOUM
urtzintz egin eraz ten nan.
joan hadi hire etxera mukiak botatzera!


esaten dizudan bezala, zure marrubiengatik da.
¡hire barrabilak, bortz ajola!
Itzegin dezagun ba...
Alde hemendik...!
ez, ez horixe
denak mardatzen ditik hirekin!
Nik esan nahi dizudana hauxe da; enliak zure marrubitik nere barrabiletera datozela eta ez alderantziz
eta, hau da zuk entzun nahi ez duzuna.
nere barrabilak zure marrubiak baino gusto hobea dauzkatela!

NAFARROA OINEZ-88

Etorriko zarete
hona bazkaltzera
ibiliko gerade
gure tankera
oraintxe noa bai ni
etxera lanera
egun hortarako bai
gauzak prestatzera
gure pentsakera
gehientan da bera
maitatzia euskera
gu lagunak gera
gonbidatzen zaituztet
hona etortzera.

Saldu beharko dugu
galtza eta zapin
behar duguna eiteko
diruarekin
bihotzetik ateitzen
diren txinpartekin
txarangak egiten dun
salto ta furrekin
eutsi gogor Krixpin
saltzen gogor ekin
ohizko gogoekin
denok lana egin
gure Euskera zaharra
galdu ez dadin.

Esan behar dizuet
gauza bat bihotzez
negarrez hasiko naiz
pozaren pozez
bukatuta dugula
izerdi ta nekez
hau egiten dugula
guk dugun beharrez
bete pegatinez
baita kamisetez
lotsik ez izan ez
gure atseginez
Lesakan izango da
Nafarroa Oinez.

(Doinua: Betroiarena)

Karmele

Nafarroa Oinez bai
Euskararen alde
Gure herri zaharra
inoiz ez nekatzen.

Euskal Herria maite ta
Euskara ahaztu
inolaz ezin leike
gogoan onartu
eutsi gure hizkuntza
ikas ta zabaldu
egin dezagun bultza
indar ta askatu.

TTIPI-TTAPAKO HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!

IZEN DEITURAK _____
HELBIDEA _____
TELEFONOA _____
HERRIA _____
PROBINTZIA _____
BANKU EDO AURREZKI KUTXA _____
SUKURTSALA _____
ZENBAKIA _____

SINADURA

URTERAKO HARPIDETZA 1.000 PZTA.

NAFARROA OINEZ-88

LESAKA

URRIAK, 9

175 pzta.